



BATZORDEAK
GEHIENGOZ ONETSI
DU EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEAREN
NAZIOARTEKO
OFIZIALTASUNA
ESKATZEA

EUSKAL SELEKZIOAK
AFIZIOAREKIN KONEKTATU
DU BERRIRO ERE
MENDIZORROZAN

HAU DA FESTA!

BIDASOA BUS



Eskoriatza Kalea, 5 | 01013 Vitoria - Gasteiz | T. 945 27 90 11

**AUTOCARES
COCHES DE LUJO
TAXIS
LIMUSINAS**

**GRUPOS
EMPRESAS
ESCOLARES
EVENTOS**



3	EDITORIALA
4	FEDERAZIOAREN GAURKOTASUNA
5	EPAILE KOLEKTIBOA
6-9	LEHEN MAILA
10-11	NUTRIZIOA ETA KIROLA
12-13	EUSKAL SELEKZIOA
14	BIGARREN B MAILA
15	HIRUGARREN MAILA
16-17	EMAKUMEEN FUTBOLA
18-19	OINARRIZKO FUTBOLA
20-21	ARETO FUTBOLA
22	BERRIAK

©:

EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Luis María Elustondo,
Kepa Allica, Haritz Gallastegi,
Unai Zabaleta y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
webmaster@eff-fvf.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziak erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

FUTBOLA ETA SENTIMENDUAK

Denboraldi hau oso lehiatua izaten ari da, emozioz eta urduritasunez beteta dago ia maila eta diziplina guztietan.

Euskadin hainbat ekipo jo eta ke borrokatzen ari dira ez jaisteko, baina beste batzuk igotzeko promozioan edo igotzeko zorian daude. Ea asmatzen duten eta zorte pixka batek laguntzen dituen.

Orain dela gutxi eta prozesu zuzen eta garden bat jarraituz batzar bat egin dugu Durangon, Euskadiko Futbol Federakundearen zuzendaritza batzordeak aurretik onetsi zuena. Bertan, Euskal Selektzioaren ofizialtasuna eskatzea onetsi zen abstentzio batekin eta gainerako boto guztiak alde izanda.

Euskal futbolaren sentikortasuna jaso dugu, besterik ez.

Ez dago irakurketa negatiborik, ez asmo arrarorik. Ez da inolaz ere liskarrik ez hausturarik eragin nahi instituzioekin. Izaera unibertsala duen profil propio bat aitortu nahi da, besterik ez.

Ez dago presiorik, eman beharreko urratsak neurtuak, pausatuak, adostuak eta hainbat fasetan garatuak izan behar dira erakundeek aurrera egin eta denborak garai onak ematen dizkigun heinean.

Bestalde, geure burua zoriondu behar dugu emakumeen futbola izaten ari den gorakadarengatik; zalantzarik gabe, oso erakargarria izango den lehiakortasun- eta afizio-mailara iritsiko da.

Klubak eta babesleak horren aldeko apustu irmoa egiten ari dira, baita bi profiletako selektzioen aldekoa ere.

Euskadin areto futbola bultzatu behar dugu klubek eta federazioak eskaintzen ari diren programa konstante-arekin eta, zalantzarik gabe, babesleen eta dirulaguntzen laguntza behar-beharrezkoarekin.

Azkenik, oroitarazi nahi dugu hondartzako futbol seniorrean lehiatu garela hiru aldiz, eta horietako bitan federazioen estatu mailan hirugarren geratu garela.

Zilegi den moduan, egindako isilpeko lan eraginkorra zoriondu eta eskertu nahi diegu, batez ere, klub xumeei eta baliabide gutxi dituztenei.

Zuzendari, jokalaria, entrenatzaile, epaile, mediku, fisio, laguntzaile eta abarrei, guztiei. Zorionak. Eskerrik asko.

Luis María Elustondo.
Euskadiko Futbol Federazioko Presidentea.



Zurutuza, Illarramendi, Amorrortu, Riesgo eta García, Durangon egindako Batzarrera bertaratutakoen artean/ ARGAZKIA DEIA

BATZORDEAK UEFA ETA FIFA-RI OFIZIALTASUNA ESKATZEA ONETSI DU

Durangon egin zen Euskal Federakundearen Batzar Orokorrak onetsi zuen ofizialtasunaren eskakizun formala egitea eta UEFA-n eta FIFA-n sartzeari eskatzea.

David Novo

Euskadiko Futbol Federakundearen azken Ohiko Batzar Orokorra Duran-

goko San Agustín Kultur Zentroan egin zen, iragan abenduan. Bertan, ofizialtasuna eskatzea onetsi zen eta, beraz, baita nazioarteko futbol gidalariak zuzenean sartzea ere, hau da, UEFA-n eta FIFA-n.

Bozketaren emaitza ahobatezkoa izan zen: 43 txartel proposamenaren alde, zero aurka eta abstentzio bat.

Bertara hainbat jokalarik ezagunak joan ziren, Asier Illarramendi eta David Zurutuza (Real Sociedad),

Asier Riesgo (Eibar), Manu Garcia (Alavés) eta Ainhoa Tirapu (Athletic) kasu, baita Jose Angel Iribar Athleticen izen handia eta Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendari Jon Redondo ere, besteak beste.

Bozketak isilpekoa eta izenezkoa izan zen, baina Real Sociaderek eta Athletic Clubek ekimenaren alde bozkatu zutela jakin zen. Deportivo Alavés eta Sociedad Deportiva Eibar ez ziren bozkatzerak.

ELITEKO EUSKAL ARBITRAJE FEMENINOAREN KALITATEA ETA KOPURUA AREAGOTU EGIN DIRA

Euskadin Emakumeen Lehenengo eta Bigarren Mailetan emakumezko hiru epaile zeuden eta orain bederatzi daude mailarik altueneko partidak zuzentzen.

David Novo



Euskadiko Epaileen Komiteak 2018/19 denboraldian emakumezko bederatzi epaile izateaz harro egon daiteke -Estatuko futbol femeni-

noaren lehenengo bi kategorietan aritzen dira-; bat gehiago dira Iberdrola Ligako emakumezko arbitro laguntzaile bat zenbatuz gero. Lehenengo Mailan emakumezko

hiru epaile nagusi daude pasa den ikasturteko bien ordeiz: Beatriz Arregui Gamir, Arantza Gallastegui Perez eta Olatz Rivera Olmedo. Maila bat beherago ordea, emakumezko sei epaile daude: Nahia Alonso Fernandez, Ane Asla Borralló, Ane Miren Fuentes Menayo, Ingrid Pardo Magdalena eta Arene Perez Ibañez de Aldekoa, Nagore Huici Sotoz gain. Iaz bakarra zegoen.

Baina zifrak harago doaz, izan ere, Irigartze Fernández Esesumaga getxoztarra Emakumezkoen Lehenengo Mailako eta Gizonezkoen Hirugarren Mailako arbitro laguntzailea baita. Azken maila horretan lankide ditu Nahia Alonso Fernandez eta Haizea Castresana Zorroza.

Hortaz, euskal arbitraje femeninoa historiako unerik onenean dago eta oso ongi prestatuta dauden eta motibazio handia duten emakumezko epaileez osatuta dago.

Distribuidor oficial:

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VIÑEDOS

AMAREN
CAÑAS
CAÑAS

Nuestra especialidad, los buenos VINOS.



Teléfono 943176075
aral@aral97.com

aral97.com

DEPORTIVO ALAVÉSEK ERREKOR HISTORIKOA HAUTSI DU LEHENENGO ITZULIAN

Babazorroek txapelketaren lehenengo zatia Europako posizioetan amaitu zuten 31 punturekin; era horretan, haiek Ligan izandako errekor historikoa hautsi dute.

A. M.



Deportivo Alavesek ametsetako lehenengo itzulia egin du 2001-2002 denboraldian Mane gidari izan zuen ekipoak zuen puntuen

errekorra hautsiz. Abeldoren mutilek Mendizorroza gotorleku bilakatu dute eta txapelketaren lehenengo itzuli honetan garaitugabeak izan dira. Gainera, ga-

raipen epikoak izan dituzte, Real Madriden aurka deskontu-denboran lortutakoa kasu, Manu Garcia korerretik gola sartu zuen.

ALAVES B PLAY-OFF EREMUAN SARTZEKO BORROKATZEN ARI DA

Mendeko ekipoak lehenengo itzuli gorabeheratsu xamarra egin du. Igotzeko play-off eremutik kanpo geratu da, baina txapelketaren bigarren zatian helburu hori erdiesten saiatuko da. Hasiera ederra izan zuen, ondoz ondoko hiru garaipenekin -guztiak tarte handiarekin-; halabaina, gero porrot egiten eta lehenengo plazatik urruntzen hasi zen. Plaz hori Portugaleterena da.



Goco Tour

Barrio Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (+34) 94 630 82 50 - 24 horas: 665 295 623

E-mail: gocotour@gocotour.com - www.gocotour.com

- Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL
- BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.
- Vehículos de: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 Plazas
- ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)
- Servicio de TAXI

ATHLETIC CLUBEK GAIZKA GARITANOREKIN ERREAKZIONATU DU

Levanten izandako porrot biribilak (3-0) Eduardo Berizzo kargugabetzea azkartu zuen, ekipoa jaitsiera-eremuan zegoela utzi zuen urtarrilaren 4an.

A.M.

Gaizka Garitano ekipo zuri-gorrira iristea inflexio-puntua izan da Athletic Clubentzat. Klubak Eduardo Berizzo kargutik ken-

tzera behartuta ikusi zuen bere burua 14. jardunaldian Levanteren estadioa bisitatu zutenean izandako porrot handia eta gero. Tekniko argentinarra kargugabetu zuten jaitsiera-eremuan zegoen ekipo batekin 5 porrot, 8 berdinketa eta 1 garaipenekin.

Derioko teknikoak erreleboa hartu zuen, Patxi Ferreiraren laguntzarekin, eta berehala betebeteen asmatu zuen. Bilbotarrek defentsan askoz solidoagoa eta erasoan eraginkorragoa zen sistema baten alde egin zuten. Horri esker emaitza onak eskuratu dituz-

AITOR ELIZEGI GARAILE HISTORIAKO HAUTESKUNDERIK ESTUENETAN

19.060 bazkidek parte hartu zuten zuri-gorrien historiako hauteskunderik estuenetan, zeinetan Elizegi garaile atera zen 85 botoen aldearekin besterik ez.

A.M.

Iragan abenduaren 27an Aitor Elizegi Athletic Cluben historiako 32. presidente bilakatu zen zuri-gorrien historiako hauteskunderik estuenak irabazi ondoren; soilik 85 botoen aldearekin erabaki ziren. Bozketara



**JOSE M^e AMORRORTUK
KIROL-ZUZENDARI
GARAIAI AMAIERA
EMAN DIO**

Jose Mari Amorrortuk, 2011tik zuzendari zenak eta ekainaren 30a arte kontratua zuenak, iragan urtarrilaren 2an bere loturari adiskidetasunez amaiera eman zion.

te, bata bestearen atzetik, eta sailkapen-taulan gora egin dute. Errege-kopan, aitzitik, Sevilla indartsu batek kanporatu zituen, lehoiek ere irudi ona eskaini zuten arren

deituta zeuden 41.354 bazkideetatik, soilik 22.295 (% 46,77) bozkatu zuten eta haien botoak honela banatu ziren: Aitor Elizegik 9.264 (% 47,90) jaso zituen, Alberto Uribe-Echevarriak 9.179 (% 47,46); boto zuriak 781 izan ziren (% 4,04) eta boto baliogabeak 116 (% 0,60).

Horrela, Elizegik Josu Urrutia ordezkatu du, eta harekin batera egongo dira Mikel Martínez (presidenteordea), Fernando San Jose (idazkaria), María Tato (idazkariordea), Jon Ander de las Fuentes (kontularia), Aitor Bernardo (diruzaina) eta bokalak: Oscar Beristain, Begoña Castaño, Itziar Villamandos, Joana Martínez, Iker Goñi, Oscar Arce, Goyo Arbizu, Tomas Ondarra, Manu Mosteiro, Ricardo Hernani eta Jorge Gomez. Atal deportiboari dagokionean, Rafa Alkortak kirol-zuzendari-tzaren agintea hartu du eta Andoni Aiarza idazkari teknikoa da. Gainera, Juan Carlos Ercoreca Fundazioaren presidente berria da.

SD EIBAR ERREGULARTASUNAREN BILA SUFRIMENDUA SAIHESTE ALDERA

Jose Luis Mendilibarrenek lehenengo itzulia lausotu dute bolada txar batekin, azken 6 jardunaldietan ez baitute irabaztea lortu.

A. M.



Hasiera kezkarria izan zuten Huesca eta Getaferen kontra galduta, baina Eibarrek bere bidea zuzendu zuen hurrengo hamaika jardunal-

dietan bost garaipen eta hiru berdinketarekin. Balantze ederra, baikortasunera gonbidatzen zuena eta Europako postuetatik hurbil utzi zuena. Alabaina, armeroek

CD VITORIAK SUFRITU BEHARKO DU MANTENDU AHAL IZATEKO

Armeroen eskumen-dekoak egoera zaila du sailkapenari dagokionez, oraintsu entrenatzailea aldatu behar izan du egoera gainditzeko.

Vitoriak hamaika partida galdu ditu lehenengo itzulian eta, hortaz, txapelketaren bigarren zatian bikaina izatera behartuta dago mantendu ahal izateko.

txapelketaren lehenengo zatia zalantza askorekin amaitu zuten eta azkeneko sei jardunaldietan ez zuten irabaztea lortu, bi porrot eta lau berdinketa izan zituzten.

joan-etorriaren atsegina

VALLINA
BUS AUTO

IBILGAILUAK GIDARIAREKIN

943 39 38 48
Donostia-San Sebastián

autoak
autobusak
microbusak

REAL SOCIEDADEK ETXeko GIZON BATENGANA JO DU BERRIRO: ALGUACIL

Txuri-urdinek iragan abenduaren 26an Asier Garitano kargugabetuko zutela jakinarazi zuten, zeina uztailen iritsi zen Leganésen lan ona egin eta gero.

A. M.



Real Sociadadek etxeko gizon batengana jo du berriro, Imanol Alguacilengana hain zuzen. Aurreko denboraldian ere berarengana jo

zuen Eusebio Sacristanen erreleboa hartzeko eta oso emaitza onak izan zituen. Errege-kopan Betisen kontra galdu arren, donostiarrek Ligan erreakzionatu dute entre-

BARRENETXEAREN DEBUT GOIZTIARRA HISTORIKOA IZAN DA

Ander Barrenetxeak Ligan debuta egin zuen iragan abenduaren 22an, donostiarren eta Deportivo Alavesen arteko norgehiagokan. Antiguoko harrobi oparoan hazi zen futbolaria 85. minutuan atera zen Anoetara eta Lehenengo Mailan debuta egiten duen XXI. mendean jaiotako lehenengo futbolari bihurtu da, 16 urte eta 359 egunekin.

natzaile berriarekin, zeina garaipe handi batekin estreinatu zen (0-2) kanpoan eta Real Madriden kontra, gipuzkoarrekin estreinatu zenean.

 **EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL 

Julian Gaiarre 48 bajo - 48004 Bilbao
Tif.: 94 473 19 00 | Fax: 94 473 22 21

Web | www.eff-fvf.org
Twitter | @EFF_FVF
Instagram | EFF_FVF

 www.instagram.com/EFF_FVF

Ahora también en  Instagram
¡Síguenos!

Toda la información de la eff-fvf en un **click**

 **Hamaiika**
EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

Descárgate esta revista en pdf

ELIKADURA FUTBOLEAN

Elikadura osasungarria izatearen gaia puri-purian dago, eta guztiok jakin badakigu osasuntsu, aktibo eta indartsu sentitzeko gure elikaduran jarraibide egokiak jarraitu behar ditugula, hala egin ezean lehenago edo beranduago arazoak sortuko direlako.

Ainhoa Prieto

Kirolean gauza bera gertatzen da, eta kasu honetan futboleant. Azken urteotan nutrizioak eta elikadurak geroz eta protagonismo handiago dut eta jokalariek eta entrenatzaileak geroz eta konprometitua daude gaiarekin eta klubek arlo horretan profesional kualifikatu bat izatearen aldeko apustua egin dute. Helburua elikadura osasungarriaren kultura sortzen dute txikienetatik lehen mailako ekipora.

Eta zergatik da hain garrantzitsua elikadura futboleant?

Elikadura osasungarria izateak eta elikagai egokiak aukeratzeak eragin zuzena du jokalarien osasunean eta errendimenduan.

Elikagai, likido eta gehigarri jakin batzuen ahorakinak, motak eta kantitateak jokalariek partidu eta entrenamendu-saioetarako duten prestakuntza, errendimendua eta errekupeazioa optimiza dezake.

Azken urteotan futbolak eboluzionatu duen modu berean, nu-



**“Futboleko Nutrizio Akordioa 2018”
Kirol-nutrizioa**

trizioari buruzko gomendioak ere aldatu egin dira, eta “futbol berriak” dituen energia-eskaereta egokitu da. Horrela, bukatu berri den 2018an, UEFAk “Futboleko Nutrizio Akordioa 2018” sortu zuen elikaduraren bidez jokalariek hobe zaintzeko.

Akordio horretan, UEFAk adierazten du nutrizioaren eta elikaduraren zein alderdi eta puntu diren gakoak eta funtsezkoak futbolarien osasunaren eta errendimenduan.

Puntu horien artean nabarmenenak honakoak dira:

Beheko kategoriak

- Heltze eta hazkunde fase honetan, egokiena da errutinazko kontrolak egitea bakoitzaren beharrak ebaluatzeko energiari, nutrienteei eta hidratazioari dagokienez, betiere jokalaria bakoitzak entrenatzeko eta lehiatzeko

duen modua oinarri hartuta. Zeregin hori ongi egiten ari garela ziurtatzeko, kirol-nutrizioan kualifikatuta eta espezializatuta dagoen dietista-nutrizionista batengana jotzea da onena. Horrela zure seme-alaben elikadura ongi kontrolatuta dagoela ziurtatuko duzu.

- Familiaren zein klubaren babesa funtsezkoak dira txikitatik elikadura osasungarriaren heziketa eta kultura sustatzeko.

- Nutriente jakin batzuen ekarpenak, kaltzio, fosforo eta burdinarenak kasu, kontrolatua izan behar du garai horretan haien behar handiagoa baitago. Azukararik gabeko esnekiak, lekaleak, barazkiak (hosto berdekoak bereziki), arraina eta haragia beharrezkoak dira nutriente horien ekarpen egokia egiteko.

- Nutrizio-gehigarri erabilera erabat mugatuta egongo da junior jokalarientzat, arrazoi kliniko bat dela-eta profesional kualifikatu batek agindu duenean izan ezik.

Futbol femeninoa

- Futbol femeninoan, hainbat arrazoiengatik, kalorien ahorkina kontrolatzeko joera handiagoa dago, eta futbolariak bere gastu kalorikoa asetzeko behar duena baino txikiagoa izan ohi da. Joera hori arriskutsua da jokalarien osasunerako, energia ahorakin desegokiak era negozi-boan eragiten du kirol-errendimenduan eta nekatu eta lesionatzeko arriskua eragiten du.

... 11. orrialdean jarraitzen du

11 #NUTRIZIOA ETA KIROLA

• Hori dela eta, elikadura osasungarria izatea funtsezkoa da, futbol maskulinoan bezala, eta garrantzitsua da elikagai naturalak eta ahalik eta gutxien prozesatutakoak aukeratzea. Hala, beharrezkoa da aleak eta labore integralak, barazkiak, frutak, lekaleak, arraina, haragi-giharrak eta azukrerik gabeko esnekiak hartzea karbohidratoak, zuntza, burdina, kaltzioa, zinka, magnesioa, azido folikoa eta bestelako nutrienteen ekarpena egokia dela ziurtatzeko.

• Burdina, kaltzioa eta D bitamina faltak eragindako gabezia nutrizionalen kasuan, gomendagarria izan daiteke nutriente horien gehigarriak hartzea maila egokiak mantentze aldera.

Horretarako, beharrezkoa da medikuarenera eta nutrizionista batengana joatea.

Lesio baten ondorengo errehabilitazioa

• Lesio bat izan ondoren, kontu berezia izan behar da oreka energetikoa mantentzeko eta gizentzea ekiditeko. Era berean, proteinan aberatsak diren elikagaiak hartzea funtsezkoa da ehunen errekupe-ratio-prozesua hobetzeko.

Egunean zehar proteinen ahorakina erregularra izatea gomendatzen da, 3-4 orduko 20-30g proteina hartuz. Ekarpen horren



Fuente: The Australian Nutrition Foundation Inc. 3rd Edition. 2015

adibide izan daiteke: oilasko, indioilar edo txahal bularkiarene 1 xerra; era naturalean dagoen kontserbako atun 1 lata txiki; 300ml behi-esne; 400ml soja-esne; 4 arrautz egosi (osoak); dislisten 1 plater



handi; 300g kinoa.

Hemen aurkeztutako gomendioak eta UEFAn 2018an berriki aurkeztu zituen grafikoko gainerako puntuak orokorrak dira jokalari guztientzat, eta ez ditu kontuan hartzen haietako bakoitzaren egoera partikularrak.

Horrela, kasu guztietarako, nutrizio-plan bat gauzatzeko beharra planteatzen denean, beti beharrezkoa izango da kirol-nutrizioan kualifikatutako dietista-nutrizionista baten gana jotzea jokalari bakoitzaren kasuari era ziur batean heldu ahal izan diezaion, jokalariren osasuna eta errendimendua arriskuan jarri gabe.

Deportivo Alavés, Saski Baskonia eta Euskal Futbol Federakundeko dietista-nutrizionista deportiboa.



¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Baja diaria
- Accidentes

- Jubilación
- EPSV
- Ahorro

- Dependencia
- Autónomos
- Inversión



bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGUROS ASESORÍA-INTERMEDIACIÓN S.L.
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.



surne
seguros e pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN.
Easo, 7 - 1ºD
20006 San Sebastián
944 430 798

www.surne.es

EUSKAL SELEKZIOA ESNE-MAMITAN ITZULI DA VENEZUELAREN KONTRA GOL ASKOZ IRABAZI ETA GERO

Hiru-kolorekoen nagusitasuna argia izan zen gorrilunen kontrako norgehiagokan eta garaile garbia izan zen Mendizorrozan; giroa aparta izan zen.

A.M.

Urtebete baino gehiagoan geldirik egon eta gero, Euskal Selekzioak hitzordua izan zuen bere afizioarekin eta esne-mamitan egin zuen, Venezuelaren kontrako norgehiagokan garaile argia izan baitzen, topaketaren ia fase guztietan nagusituz. Mendizorrozak ia lau hamarkada eta gero hiru-kolorekoaren partida bat hartu zuen berriro. Jai giroa aparta izan zen eta Amorrortuk eta Etxarrik zuzentzen duten konbinatua airean eraman zuen. Lehen-

engo urratsak eman zituzten unean bertan, etxekoek agintea hartu zuten eta lehenengo erdiaren ekuatorean aurreratu egin ziren Ibai Gomez azkarak eraldatutako libre zuzen batekin, zeinak arraseko jaurtiketa egin eta hesia ustekabean harrapatu zuen jauzi egin baitzuen. Gorrilunek bost minutu geroago erreakzionatu egin zuten eta berdindu egin ziren Romerok bota eta Yurirengan errebotatu zuen jaurtiketa batekin. Partida berriz hasi zenean, hasiera bikaina izan zuten eta norgehiagoka epaituta utzi zuten Bautista eta Arbillaren golek. Elustondok amaiera bikaina eman zion.

EUSKAL SELEKZIOA: Riesgo (Serantes, 45'), Martin, Aritz, Iñigo Martínez (Arbilla, 45'), Yuri, Illarramendi (Dani García, 45'), Manu (Vesga, 58'), Williams, Zurutza (Sangalli, 45'), Ibai (Bautista, 45') y Aduriz (Eraso, 45').
VENEZUELA: Romo, Rosales, Osorio, Angel, Mago, Figuera, Romero (Moreno, 71'), Murillo (Savarino, 58'), Otero (Rincon, 58'), Peñaranda (Bello, 58') y



Euskal selekzioaren jokalariek, Mendizorrozan

Josef Martinez (Ponce, 58').

■ EPAILEA

Undiano Mallenco in. Arbilla eta Muri-llori kargu hartu zien.

■ GOLAK

1-0 min. 25 Ibai; 1-1 min. 30. Romero; 2-1 min. 48 Bautista; 3-1 min. 52 Arbilla; 4-1 min. 87 Aritz Elustondo y 4-2 min. 89 Ponce.

GIRO EDERRA MENDIZORROZAN 38 URTE GEROAGO

Euskal Selekzioa estadiora itzuli zen ia lau hamarkada geroago eta giroa aparta izan zen. Euskal Selekzioak 1980ko abuztuaren 4an jokatu zuen azken aldiz Mendizorrozan, eta hiru-koloreko historiaren porrot handiena izan zuen: Hungariako konbinatuaren aurka erori zen 1-5 markatzaile mingarri batekin, Amorrorturen gol batekin.

FEDERAZIOAREN OMENALDIA XABI PRIETO ETA AGIRRETXERI

Topaketaren hasieran, Euskadiko Futbol Federakundeak berriki erretiratu diren eta hiru koloreak ohore handiz defendatu zituzten bi futbolari enblematiko omendu zituen. Xabi Prieto Euskal Selekzioaren elastikoa gehien jantzi duen futbolaria da oraindik ere (14 aldiz) eta Imanol Agirretxek ere itzala utzi du Euskal Selekzioan, golak gehituz eta sakrifizio handia eginez, Real Sociadetan egin zuen moduan.



13 #EUSKAL SELEKZIOA



AEXA
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado
y repasado
de ropa deportiva
Desde 1970**

BARAKALDO ETA LEIOA, BEHEKO POSTUENGATIKO KEZKAK MARKATUTAKO LEHENENGO ITZULI BATEN AURPEGIA

Bigarren B-ko txapelketaren lehenengo itzulia euskal ekipo bat play off-en, hiru jaitsiera zuzenean eta beste bat play out postuan zedula amaitu zen.

David Novo

Kezka. Hori da euskal ekipoentzat Bigarren B Mailan Ligako lehenengo 19 jardunaldiak hobe laburtzen dituen hitza. Brontzezko Dibisioaren II. Taldean EAE-ko hamar ordezkari zeuden -partehartzaileen erdiak-; hortaz, normala da baten bati sobera sufritzea egokitzea eta badirudi honakoa halako kanpaina bat izan dela.

Txanponaren aurkia Bara-



kaldorentzat da, maila osatzen duten 80 ekipoetatik jardunaldi guztietan lehenengo lau sailkatuen artean mantendu den bakarra.

Igoerako promozio-eremua baino postu bat beherago Leioa dago, erregularitasunaren txapelketaren ekuadorera iritsi eta gero. Bilbao Athletic eta Real Sociedad B denboraldi lasaia izaten ari dira, lehenago edo beranduago Lehenengo Mailan ikusiko ditugun perlak leuntzen dituzten bitartean; aitzitik, Arenasek eta Real Uniónek, Kopako bi txapeldun historikoez, ez dute es-tualdirik pasatu, baina badakite bigarren itzulian erne ibili behar direla postu arriskutsuagoetara ez erortzeko.

REAL UNION, KOPAKO LAURDENETAN

Kopa Federación de Klakoaren edizio honetan parte hartu duen ekipo euskaldun bakarra da Real Unión, zeina 'Umilen Kopa' deritzonaren borrokan darraien. Iruindarrak final-laurdenetan sartu dira atzean utzi ondoren Nafarroako Peña Sport zortzirenetan (7-3 globalean), Cultural de Durango hamaseirenetan eta Zamudio itzuli autonomi-koan.

Azken horretan Arenas, Portugaleta eta Real Sociedad C ekipoek ere parte hartu zuten. Bestalde, Mirandesek zortzirenetan Barakaldo eliminatu zuen.

Behean, hodei beltzak begitatzten dira gure ordezkari-entzat.

Gernikak lehenengo itzulia jaitsierako promozio-postuetan bukatu zuen; Amorebieta, Cultural de Durango eta Vitoria ordea Hirugarren Mailara jaitsiko lirateke, hiru arraste eraginez.

 **Sport·designer**



GRUPO CAMPUS


precio / prezioa

9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: www.sport-designer.com



PORTUGALETE, HAMARKADA HONETAKO NEGUKO TXAPELDUNIK ONENA

Portugaletek Hirugarren Mailako euskal taldearen lehiaketaren lehenengo itzulia 47 punturekin itxi zuen, azken urteotako markarik onenarekin.

D. N.



Portugalete neguko txapeliduna izan da Sestao Riverri hamar puntuko abantaila aterata, Somorrostrori 11koa eta Real Sociedad C eki-

poari 14koa; horiek dira Hirugarren Mailako IV. Taldean lehenengo itzulia igotzeko promozio-eremuan bukatu zuten beste hiru ekipoak. Alabaina, Liga

horrela amaituz gero, bigarren eskumendeko txuriurdinak igotzeko fasean bere postua bosgarren sailkatutakoari, Balmasedari, utziko lioke ezin baitu play off-a jokatu Sanse 2. B-n dagoelako.

Portugaletarrak onenak dira momentuz. Orain arte azkeneko hamarkadan txapelketaren ekuatorean inoiz erregistratu den puntuaziorik onena gaindika gainditu dute. Orain arte errekorra, lehenengo 19 partidetan 43 punturekin, Leioak zuen 2013/14 denboraldian eta Alavés B-k 2016/17an.

Behean, ia liga erdia azkeneko hiru posizioak ekiditen saiatzen ari da, Erregionalerara jaistera kondentzen dutenak -lehenengo itzuliaren amaieran Bermeo, San Pedro eta Ordizia ekipoek zituzten postu horiek- baina baita 14-15-16-17 postuak ere, Bigarren B-tik euskal ekipoak arrasta daitezkeela aurreikusten baita.



Eventos con garantía de éxito

HGB
HOTEL GRAN BILBAO



El Hotel Gran Bilbao es el único hotel que dispone de palacio de congresos además de 1,800 metros cuadrados de salones para eventos.

Es un espacio idóneo para organizar eventos de empresa, convenciones, formaciones y presentaciones de producto.

El hotel ofrece apoyo integral a la gestión del evento y gran variedad de menús para banquetes y coffee breaks.

- El hotel está situado a escasos pasos del casco viejo,
- tiene muy fácil acceso para llegar en coche
- y ofrece parking gratuito para los asistentes.



ANOETAK EMAKUMEEN PARTIDA BAT HARTUKO DU AURRENEKOZ

Donostiako estadioak Real eta Athleticen arteko derbiaz gozatzeko atek irekitzen dituen Bigarren urte kontsekutiboa da. Lehenengoa 2018ko maiatzean izan zen eta 21.500 ikusle bertaratu ziren. Horrez gain, San Mamés Barriak ere lehoien eta Atletico de Madriden arteko Kopako kanporaketa eskaini zuen iragan urtarrilaren 30ean.

REAL SOCIEDAD ETA ATHLETIC LIGAKO ONENEKIN DAUDE

Neska donostiarrak eta bilbotarrak bigarren itzulian murgilduta daude Iberdrola Ligaren goiko postuetatik borrokan mantentzeko asmoarekin.

daren neskak adoretu zituen, Koparen zortzirenetan Valentziari irabazita. Gero ekipoak erreakzionatu egin zuen taulan arazoak ez izateko.

Bestalde, bilbotarrek kanpaina gaizki hasi zuten. Hamabitik bi

puntu lortuta Joseba Agirrerren neskak kostata aterako dira behetik.

Lehoiek izpiritu borrokalaria dutela erakutsi zuten Kopan. Betisen 3-0 bat berdindu zuten eta penaltietan pasa ziren.

Txemi García

R real Sociedad eta Athletic Club izaerarekin eta harrotasunarekin lehiatzen ari dira gero eta exigenteagoa den Iberdrola Ligan. Biak ala biak taularen goialdean daude, baina lehenengo eta bigarren postuetatik urrun, Atletico de Madridek eta Barcelonak erakutsi dute gainerakoek baino maila hobea dutela txapeldun izateko. Donostiarrek sentsazio onekin hasi zuten Liga. Estutasunean zudenean, hamabitik hamar puntu lortu zituzten Gonzalo Arcona-

1. MAILAKO KLUBAK ETENGABE HAZTEN

Athletic Club, Real Sociedad, Alavés eta Eibar. Mutilen futbolaren kategoria gorenean aritzen diren lau ordezkariak haien sekzio femeninoen aldeko apostua egiten dute gero eta sarriago. Denboraldi bakoitzean geroz eta gehiago indartzen da klub horien oinarria eta gainerako ekipoen harrobiaren lana.

LEHENENGO ITZULIA BIGARREN MAILAN ETA EUSKADIKO LIGAN

Zilarrezko kategorian Zetxeko hiru ekipo (Eibar, Alavés eta Athletic B) Lehenengo B deritzon txapelketa berrira pasatzea ahalbidentzen duten plazen alde jokatzeko ari dira. Euskadiko Ligan txapelduna izateko norgehiagoka bizia aurreikusten da. Tolosa, Arratia, Leioako eta Pauldarrak fabritoak direla dirudi.

EUSKADI AZPI-17 ETA AZPI-15 ONGI ARITU DIRA ESTATAL AUTONOMIKOAN

MAILA BIKAINA

Futbol euskaldunak kalitatezko harrobi aberatsa du.

Bi selekzioak otsailean bigarren fasean lehiatuko dira Granadako topaketetan partida onak jokatu eta gero.

Txemi García

Euskadi azpi-17 eta azpi-15 selekzioen estatal autonomikoaren lehenengo fasean lehiatu ziren abenduan.

Jon Kepa González eta Idurre Fríasek gidatzen dituzten ekipoak haien ahalmena agertzeko ilusioz eta anbizioz beteta joan ziren. Parte hartzen zuten nesken adinen aldaketak txapelketa markatu du, ez baitago azpi-18 eta azpi-16 konbinaturik.

Bi mailetan jokalaria dena eman zuten Valentzia eta Errioxaren aurka jokatutako topaketetan ahalik eta puntu gehien batzeko helburuarekin, izan ere, bigarren faserako elkarrekin konpatibilizatzen baizuten. Hori dela eta, bi teknikoek valentziarren aurkako lehenengo norgehiagokak gorritz markatu zituzten, paperean gogorrena zela zirudien eta. Zaharrenek Valentzia 2-1 garaitu zuten, Cube eta Em-maren golekin, eta txikienek 0-0 berdindu zuten. Bigarren konpromisoan, egoera aldatu zen. Friasen neskek gol ugari sartu zizkieten errioxarrei, 8-0 amaituz. Jone (2), Amaia, Maider, Elene (2), Paula eta Ainhizek sartu zituzten tantoak. Bestalde, Gonzalezek jokalariek berdinduta bukatu zuten, golik gabe, Errioxaren aurka.



Azpi-15



Azpi-17

SELEKZIOETAN ADINA ALDATU DA

Denboraldi honetan Euskadiko hautesleak lan gehigarria izan zuen aukeratutako jokalaria estatal autonomikorako berregituratzeko. Azpi-18 eta azpi-16 mailetako adina azpi-17 eta azpi-15etara aldatu ziren. Jon Kepa Gonzalezek zein Idurre Friasek taldea osatzeko gaitasuna zuten jokalarien sorta zabala nabarmendu zuten. Harrobi-lan hori Euskadin funtsezkoa da emakumezkoen futbolaren etorkizunerako.

GERNIKA ETA DEUSTO GAZTEEN EUSKAL LIGAN NABARMENDU DIRA

Hiru ekipok ihes egin zuten Gazteen Euskal Ligaren lehenengo itzulian, eta Kadeteen Euskal Ligan Eibar neguko txapelduna izan zen.

Raúl A. Collantes

Gernika eta Deusto izan dira Gazteen Euskal Ligan gehien nabarmendu diren ekipoak. Barakaldoren baimenarekin -liderrarekin batera txapelketaren lehenengo erdia galdu gabe bukatzeko zorian egon zen ekipoa-. Azkenean, bi ekipoek 14. jardunaldian galdu zuten. Hiru ekipoek egin dutena alde batera utzita, maila honetan berdintasun itzela izan da ezaugarri nagusia, goiko postuetan sartzeko borrokatzen duten ekipoen artean eta jaits daitezkeen artean hamar puntuko aldea ere ez dago. Zirrara amaiera arte mantenduko da eta dena erabakitzeke dago, bai goian bai behean.

Kadeteen Euskal Ligan Real Sociedad taldeak ohiko maila agertu du baina, goiko postuetan, Eibar izan du lagun. Armeroen ekipoak lehenengo itzulia neguko txapeldunaren ohorezko tituluarekin amaitzea ere lortu du. Alaves, Antiguoko, Athletic Club eta Danok Bat izan dira Ligaren lehenengo erdian nabarmendu diren beste ekipo batzuk.

Halaber, Romok eta Santutxuk ere emaitza onak izan dituzte, azken hori onenengana hurbiltzeko borrokatzen ari da.

Gernika, Lakua eta Betoño dira ez jaisteko borrokatzen ari diren ekipoak.



Gazteen Deusto-Gernika baten irudia



Kadeteen Santutxu-Lakua baten irudia

ALDAKETAK LIGAREN IGOTZEKO SISTEMAN

Gazteen Euskal Liga eta Kadeteen Euskal Liga kategorietan 16 ekipok jokaten dute eta 2019-20 denboraldian 18 ekipo egongo dira, Euskal Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Batzar Orokorrean onetsi zenari jarraiki. Erreforma hori eragin argiak izaten hasi da kanpaina honetan. Hasteko, bi kategorietara igoko lirarteke eskualdeetako bakoitzeko txapeldun izan diren hiru ekipoak eta igoera faseko txapelduna eta txapeldunordea, hiru batean sistemaren bidez lehiatu direnak eskualdeetako bakoitzean bigarren sailakatutakoen aurka. Hau da, hiru ekipo horietatik bi kategoriaz igoko dira txapeldunekin batera. Eskualdeetako Ligeetara egingo diren jaitsierei dagokienez, postu bat murriztuko da. 14., 15. eta 16. postuetan sailkatuta daudenak jaitsiko dira.

GAZTEEN ETA KADETEEN SELEKZIOEK BIGARREN FASERAKO AUKERAK DITUZTE

HURRENGO AURKARIAK

Euskadi Valentzia eta Kantabriaren aurka lehiatuko da 2. fasean.

Euskadiko Azpi-18 eta Azpi-16 ekipoak aukerekin iritsi dira Estatuko Txapelketaren Bigarren Fasera Arrigorriagan jasotako emaitzen ondoren.

Raúl A. Collantes

Markagailu ezberdinak iragan abenduaren 28an eta 29an Arrigorriagan Selektzio Autonomikoen Txapelketa Nazionalaren Lehenengo Fasean haien konpromisoak jokatu zituzten euskal konbinatuentzat. Azpi-18 ekipoak argi eta garbi irabazi zuen bere lehenengo partida, Kanariakekoen aurka (4-0). Aukera ugari hiru-kolorekoarentzat. Bigarren norgehiagokan 1-1 berdinketa izan zuen Nafarroaren aurka. Gazteek irabazteko aukera izan zuten baina aurkariak aurreratu egin zitzaizkien eta berdindu besterik ezin izan zuten egin. Bestalde, Azpi-16 ekipoak 0-2 galdu zuen bere lehenengo partidari Kanariakekoen aurka. Horrek egin zituen bi tantoak lehenengo zatian markatu zituen. Saiatu ziren, baina ezin izan zuten egoerari buelta eman. Gero, kadeteek ordaina hartu zuten Nafarroaren aurkako norgehiagokan, 2-1 irabaziz. Irudi ona eman zuten eta haien erregistroak hobetu zituzten.

Jonathan Ledesmarek gazteen selektzioak lehenengo fasea 4 puntuarekin, haien aldeko 5 golekin eta haien aurkako 1 golekin amaitu du. Egoitz Mendizabalen kadeteen selektzioak, bestalde, fasea 3 puntuarekin, haien aldeko 2 golekin eta haien aurkako 3 golekin amaitu du. Estatalaren bigarren faseari begira, bi ekipoak puntuak nork bere aldetik batu ditu.



Euskadi Azpi-18, lehenengo fasean



Euskadi Azpi-16, lehenengo fasean

JUBENILAK PASEA EUREN ESKU DAUKATE

Euskadiko Futbol Federakundeko teknikoak, Iñaki Senak, talde biek bigarren fasera aukerekin doazela gogoratzen du, baina ñabardurekin. “Azpi-16 selektzioak hiru puntu ditu, eta partidu biak irabazi arren egoera zaila da, 9 punturekin beste emaitza batzuen zain egon behar da. Partidu biak irabazi behar dira eta beste enfrontamendu batek alde egitea”, Iñaki Senak dio.

BIGARREN B MAILA: IGO BERRI DEN OTXABARTE ONGI DABIL LIGAKO EKUATOREAN

Ibarraren kanpaina bikaina, aitzitik Zierbena airea hartzen saiatzen ari da, Laskorainek eta Santurtzik bezala, hasiera txarra izan eta gero.

C. Zárate

Bigarren B mailako euskal ekipoen artean Laburu Ibarra egiten ari den kanpaina aparta aipatzekoa da, hain zuzen, Ligako txapelketaren ekuatorera iritsi direnean. Gipuzkoako ekipoa taldeko lehenengo postua eskuratzeko



Laburu Ibarra

borrokatzen ari da Tafatransekin batera. Halaber, Otxartabe igo berraren denboraldiak ere aipamen

berezia merezi du. Bilboko taldeak ez du Hirugarren eta Bigarren B mailen arteko jauzia nabaritu, eta mailako onenekin lehiatzen ari da. Maila horretan lehiatzeko plantilla indartu egin dute, eta Rodri Garcíaren mutilak Bizkaiko ekiporik onena dira lehenengo itzularen ekuatorean.

Bestalde, Zierbena, azken urteotan lehenengo postuak eskuratzeko borrokatzera ohituta dagoen ekipoa, ikasturte honetan denboraldi gorabeheratsua izaten ari da. Zierbenarrek ez zuten ligako txapelketa ongi hasi eta harrobian errelebo bat ere izan dute. Orain, taularen erdialdean daude eta badirudi, pixkanaka, airea hartzen ari direla.

Bestalde, Laskorain eta Santurtzi sailkapenaren behakaldetik ateratzeko borrokan murgilduta daude. Gipuzkoarrek jaitsieratik babesteko puntu-koltxoia dute; portukoek aldiz garaipenak Bildu beharko dituzte arriskutik libratzeko.

Dena den, santurtziarrek bada-kite irabazteko sufritzea zer den eta hemen eta bukaera arte sufritzeko prest daude.

EMAKUMEEN BIGARREN MAILA

Bilbo taulako buru indartsua da eta erregistro apartak izaten ari da bere urtea izan daitekeen honetan. Horrez gain, Santurtzi oso gogorra izaten ari den norgehiagokan lehiatzen jarraitzen saiatuko da.

GAZTE OHOREZKO MAILA

Gora Bilbao, Otxartabe eta Zierbena. Denboraldi honetik gero eta gehiago hazten ari dira. Eskoriatzak eta Ibarak hobetuko dutelako uste osoa dute.

BERDINTASUN MAXIMOA HIRUGARREN MAILAN ETA EUSKAL LIGAN

Hirugarren Mailan egin duen bigarren denboraldi honetan, Kukuiagak sailkapenaren buruan egotea lortu du. Etxebarriren taldea denboraldi bikaina egiten ari da berdintasuna nagusi den maila batean. Taulako lehenengo postuak eskuratzeko borrokatzen ari da Elorrietako eta Afantxo ekipoekin batera eta basatia izango dela dirudi. Behean, Sasikoa, Goierri, San Jorge eta Lagun Onak, batez ere, ez jaisteko borrokatzen ari dira. Euskal Ligari dagokionez, Gernikako indartsuen agertu den ekipoa da eta, beraz, sailkapenaren buruan dago. Alabaina, Eskoriatza, Mondrate eta Scorpio, besteak beste, hemendik denboraldia amaitu arte lanak emango dizkioten ekipoak dira. Errukirik gabeko borroka oso parekatuta dagoen txapelketa batean. Txanponaren beste aurpegiari dagokionez, Scalibur eta Sosoate eskualdekora ez jaisteko borrokatzen ari dira.

EUSKADIKO SELEKZIOEK GERO ETA ESKARMENTU HANDIAGOA DUTE

Gazteen, kadeteen eta emakumeen ekipoek ezinezkoa izan zuten emaitza onak lortzea txapelketa estatal autonomikoan, baina hazten jarraitzen dute.

Carlos Zárate

Emaitzak kadeteen, gazteen eta emakumezkoen euskal selekzioen aldekoak izan ez diren arren, nor bere taldeetan lehiatu da txapelketa estatal autonomikoaren aurreko faseetan. Txapelketak eskarmentu handiagoa eman die selekzioarekin aurrerapausoak eman ditzaten eta etorkizuneko hitzorduetan balia dezaten.

Berriki, azpi-16 eta azpi-18 selekzioak Martorellen (Bartzelona) lehiatu ziren estatalaren aurreko fasean. Euskal konbinatuek ezin izan zuten hurrengo fasera pasatu eta eliminatuak izan ziren. Alde batetik, azpi-16ak bere lehenengo partida galdu zuen Gaztela-Mantxaren aurka (6-1) eta gero Kataluniaren (4-2) eta Madrilen (4-1) aurka. Talde horretan mantxatarrak finalerdietara pasatu ziren.

Bestalde, azpi-19 taldeak estreinaldi ona izan zuen Gaztela-Mantxaren aurka (6-0) eta gero gol kopuru mingarria sartu zuen Kataluniaren aurka (8-0). Madrilen aurkako norgehiagokan galdu egin zuen (4-2). Azkenik, Gaztela-Mantxa ere finalerdietara pasatu zen.

Selekzio femeninoari dagokionez, urtarrilean Archenan (Murtzia) jokatu zen txapelketan hirukolorekoa 1-3 erori zen lehenengo Valentziaren aurka eta 7-0 gero Murtzia anfitrioiarekin.



Jubenila



Kadetea



Femeninoa

CULTURAL DE DURANGO ETA SPORTING DE LUTXANA (BARAKALDO) 100 URTEKOEN KLUBEAN SARTU DIRA

Bi klubek 2019an haien fundazioaren ehungarren urteurrena ospatuko dute eta urtean zehar esne-mamitan ospatuko dute prestatu dituzten ekitaldi ugariarekin.

David Novo

Sociedad Cultural y Deportiva Durango eta Sporting de Lutxana (Barakaldo) aurten, 2019an, orain dela 100 urte sortu zirela ospatuko duten futboleko bi klub euskaldun dira. Durangarrek hain berezia den urtemuga ospatuko dute Bigarren B Mailan lehiatuz, inoiz militatu duen mailarik altuenean; Ezkerraldekoek ordea Erregional Gorenean jokatzeko dute, eskualdeko bigarren mailan.

Txuriurdinek eta txurigorriek dagoeneko haien urteurrenen logotipoak aurkeztu dituzte. Barakaldokoek kasuan, okasio honetarako bereziki diseinatu den equipaje batean ikus daiteke. Era horretan, biak 100 urtekoen klubean sartu dira. Kluba honakoek osatzen dute: Athletic, Beasain, Real Sociedad, Portugalete, Arenas, Basconia, Deusto, Mondragón, Balmaseda, Galdakao, Aban-



to, Zorroza, Erandio, Real Unión, Sestao (bi deiturekin), Barakaldo, Elgoibar eta Santutxu.



Sporting de Lutxanak oroitzapenezko kamisetak estreinatu zituen

ARBITRO BATZORDEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

Pedro Arrizabalaga Arbitroen Euskal Batzordearen presidentea da, Miguel Flores presidenteordea eta Daniel Guillerna idazkaria. Gainera, Zuzendaritza Batzordearen kide dira Zigor Arakama, Guido Böhm, Miguel Carte, Francisco Rodriguez eta Kepa Sanz.

ZAMUDIO, LAGUN ONAK ETA ZARAUTZEN 75. URTEURRENA

2018an Zamudiok 75. urteurrena ospatu zuen hainbat ekitaldirekin (herribazkaria, oroitzapenezko elastikoa, okasiorako bereziki diseinatutako logotipoa...). Aurten, 2019an, Lagun Onak eta Zarautzen txanda da.

100 URTE IGARO DIRA ARENASEN KOPATIK

Arenasek orain dela 100 urte Barçari Kopara irabazi ziola ospatuko du. Gisa horretako ehungarren urteurren bat ospatu duten beste euskal ekipo batzuk Athletic (2003), Real Sociedad (2009) eta Real Union (2013) dira. Are gehiago, trofeo hori duten EAEko 4 klubak dira.



DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

Ibéricos deluxe

Delicatessen

**ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

Aritz no sabía mucho sobre fútbol,
pero quería vivir eso. Así que, con 6 años,
le pidió a su aita que le llevara al estadio.
Y aquel árbitro, con un "Rafa, no me j***s",
le hizo entender qué era un penalti y una expulsión.
Y también, que ya no habría partido de Liga
en el que no se iría un rato a **vivir en el país de:**



**90 SON POCOS
MINUTOS PARA
TANTA EMOCIÓN**

**MOCHILA
DE REGALO**

**TARJETA
VISA
NAUTALIA
GRATIS**

**PRECIOS
Y DTOS.
ESPECIALES
PARA JUGADORES
Y FAMILIARES**

**MEJOR
PRECIO*
GARANTIZADO**



**HASTA 10%
MESES DE
FINANCIACIÓN**

Pásate por nuestras oficinas y preguntanos.

**Las
VUELAS DAN
MUCHA VIDA**



NAUTALIA
Bidaiak

BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía, 75. T. 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1. T. 946 404 028 | Luis Power, 28 (Deusto). T. 946 438 003 | Pza. Santiago, 1 (Casco Viejo). T. 946 414 010 | Las Arenas | Mayor, 4. T. 946 424 682 | Basauri | Pedro Bilbao, 2. T. 946 414 508 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31. T. 946 416 405 | ARABA | Vitoria | CC Boulevard. T. 945 103 097 | GIPUZKOA | San Sebastián | Urbieta, 47. T. 943 104 924 | Irun | Pz. J.R. Agirretxe, 3. T. 943 104 342 | Eibar | Bidebarrieta, 18. T. 943 108 960 | Rentería | Av. Navarra, 63. T. 943 104 344 | Urretxu | Labeaga, 41. T. 943 109 878 | NAFARROA | Pamplona | Serafín Olave, 15. T. 948 104 638